

2023ko Udaletarako eta Batzar Nagusietarako Hauteskunde ondoko inkesta (2023ko ekaina) Prensa oharra

SARRERA

Azterlan honen gai nagusia EAeko herritarrek maiatzaren 28an izandako Udal eta Foru Hauteskundeetan izandako hauteskunde-portaera izan da.

Landa-lana 2023ko maiatzaren 29an eta 30ean egin zen.

HAUTESKUNDE KANPAINAREKIKO INTERESA ETA JARRAIPENA

2019ko Foru eta Udal Hauteskundeetan baino interes eta jarraipen gutxiago

Biztanleriaren % 24 gizartean gertatzen diren gauzen parte sentitzen dira, % 43 pixka bat, % 23 gutxi eta % 9 batere ez. Inplikaturik egotearen sentimendua areagotu egin da 2022tik.

Herritarren % 58k adierazi dute interes handia edo nahikoa izan duela maiatzaren 28ko Udal eta Foru Hauteskundeetan; interesa 2020ko Hauteskunde Autonomikoetan izandakoaren antzekoa da (% 53), eta 2019ko Udal eta Foru Hauteskundeek eragindakoa baino txikiagoa (% 72).

Inkestatuen % 41ek egunero jarraitu du hauteskunde-kanpainari buruzko informazioa telebistaren bidez; % 28k egunkarien bidez eta % 26k irratien bidez. Kanpainaren hedabideen bidezko jarraipen hori 2020ko Hauteskunde Autonomikoetan izandakoaren antzekoa da, baina 2019ko Udal eta Foru Hauteskundeetan izandako baino txikiagoa. Gainera, % 52k Internet eta sare sozialen bidez jarraitu dute kanpainari buruzko informazioa, noizean behin behintzat.

Hauteskunde horiek hizketagai izan dira, askotan edo noizean behin, familiarekin (% 58), lagunekin (% 46) eta lankideekin edo ikaskideekin (% 27).

Herritarren % 38k hauteskunde aurreko inkestaren baten emaitzak ezagutu zituzten, baina gehienek (% 53) uste dute inkesta horiek eragin txikia edo batere ez zutela izan hautesleen boto-erabakian.

HAUTESKUNDE PORTAERA

Gehienek botoa erabakita zuten hauteskunde kanpainaren aurretik, baina gero eta gehiagok erabakitzen dute azken egunetan

Herritarren % 43k adierazi dute Batzar Nagusietarako Hauteskundeetan bere portaera erabakitzean batez ere lurralde historikoko gaiak hartu zituztela kontuan, eta % 36k Euskadiko gaiak. Udal Hauteskundeetan, % 61ek udalerriko gaiak eraginda erabaki zuten nagusiki, eta % 20k Euskadiko gaiak.

Bai Batzar Nagusietarako Hauteskundeetan, bai Udal Hauteskundeetan, boto-emateen gehiengoak erabakita zeukan hauteskunde-kanpaina baino lehen bozkatzera joango zela (% 81 eta % 82, hurrenez hurren). % 11k eta % 10ek kanpainan zehar erabaki zuten, % 2k hausnarketa-egunetan eta % 7k eta % 6k hauteskunde-egunetan bertan. Hau da, boto-emateen % 20k eta % 18k erabaki zuten Foru eta Udal Hauteskundeetan aurreko bi asteetan, hurrenez hurren, botoa ematera joango zirela. 2019an, % 16 eta % 13 izan ziren.

Botoa ez emateko erabakia beranduago hartu zen, Foru eta Udal Hauteskundeetan abstenitu zirenen % 55ek eta % 51k kanpaina hasi aurretik erabaki zuten, % 13k eta % 16k kanpainan zehar, % 7k eta % 5k hausnarketa-egunetan eta % 21ek eta % 23k hauteskunde-egunetan bertan. Hau da, abstenitu zirenen % 41ek eta % 44k erabaki zuten botorik ez ematea Foru eta Udal Hauteskundeetan aurreko bi asteetan, hurrenez hurren. 2019an, % 36 eta % 40 izan ziren.

Botoa ematera joan ziren gehienek konbentzimenduz eman zuten botoa (% 68 Batzar Nagusietarako Hauteskundeetan eta % 66 Udalekoetan), % 13k zalantzekin eman zuten, eta % 18k eta % 20k aukera txarretan onena zelako. Emandako botoaren konbentzimendua murriztu egin da 2019. urtearekin alderatuta; izan ere, orduan % 77k eta % 69k adierazi zuten konbentzimenduz bozkatu zutela.

Botoa ematera joan ziren ia pertsona guztiak (% 95 Batzar Nagusietarako Hauteskundeetan eta % 94 Udalekoetan) ados daude emandako botoarekin, hauteskunde-deialdi guztietan ohikoa den bezala.

Abstenitu zirenen artean, % 17k diote emaitzak ikusita, nahiago lukeela Batzar Nagusietarako Hauteskundeetan botoa ematera joan izan balira, eta % 16k Udal Hauteskundeetan. 2019an, % 11 eta % 10 izan ziren, hurrenez hurren.

EMAITZEN BALORAZIOA

Gehienek uste dute hauteskundeen emaitzak positiboak direla, baina 2019an baino gutxiagok

% 60k oso edo nahiko positibotzat jo dituzte bere lurraldeko Batzar Nagusietarako Hauteskundeen emaitzak; % 21ek, berriz, oso edo nahiko negatibotzat jo dituzte. Udal Hauteskundeen emaitzei dagokienez, % 59k oso edo nahiko positibotzat jotzen dituzte udalerriko emaitzak, eta % 24k oso edo nahiko negatibotzat. Emaitzen balorazioa ez da 2019koa bezain positiboa, orduan % 78k eta % 76k oso edo nahiko positibotzat jo baitzituzten.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina Udal Hauteskundeetan boto-eskubidea zuten 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 900 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm\% 3,3$ koa da EAE osorako, % 95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2023ko maiatzaren 29a eta 30a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

<http://www.euskadi.eus/ikerketa-soziologikoak>

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 2a